

## Areatza bisitatzeko koaderno argitaratuko dau Udalak

Herritarrak hain ezagun dituen kale eta txokoak beste ikuspegi batez ikustea da liburuaren helburua. Egilea, Martin Ortega Muro da; ilustrazioak egiten Jon Artetxek lagundu dau, eta Markel Petralandak, Mikel Urrizek eta Angel Larreak lagundu dabe edukietan.

Areatzako kale eta txokoaren zehaztasunak eta marrazkiak dagoz 72 orrialdetako liburuan. Areatzako etxe guztietan bananduko dau Udalak. **13. orrialdea**



## Euskal Selekzinoen aldeko ekimena aurkeztuko dabe Arratian

11. orrialdea

# Arratia mailako manifestazinoz ez da egingo

Andren Nazinoarteko Egunean, martiaren 8an, herrietan egingo dira konzentrazioak edo manifestazioak eta eurretan parte hartzea deitu dau Arratiako mobimentu feministek. Hile osoan zehar ikuskizunak, tailerrak eta berbaldiak egongo dira sexu-genero sistemaren gainean hausnartzeko.

**E**z da kasualitatea bertso saio bi dagoz programauta, bata Diman hilaren 5ean eta bestea Artean, 20an; *Erradikalak ginen* ikuskizuna ikusteko be aukera bi dagoz: Lemoan martiaren 5ean, eta Arantzazun 26an. Zeberion be, antzerkia antolatu dau Udalak, *Ama-alu-lur* 2019ko Poltsiko Antzerki Sor-kuntza saria irabazi eban antzezlan, hain zuzen be.

Tailerrai jagokienean, Autodefensa Feminista tailerra egongo da Lemoan gaztetxoentzat martiaren 6an, eta argazki tailerra egingo dabe Diman hurrengo egunean. Euskal matriarkaduren mitoaren gaineko saio biko tailerra be egongo da Zeanurin, hilaren 9 eta 16an. Dokumentalak, berbaldiak eta mahai-inguruak osotuko dabe eskaintzea. Aurten ez da mendi martxarik antolatu, ezta beste kirol jarduerarik be.

Arantzazu, Artea, Areatza, Bedia, Dima eta Zeanuriko herriko plazetan, Lemoako plaza gorrian eta Igorreko Kultur Etxean, 18:30ean da hitzordua, *Dena aldatu, sistema arrakalatu!* lempaean konzentrazio edo manifestazioetan parte hartzeako. **8. eta 9. orrialdeak**



### BEDIA

## Senegaleko proiektua berreskuratu gura dabe aurten

Udarako, 16 eta 24 urte bitartekoai, Bediak kooperazio proiektuak eskaini izan deutsez atzen urteotan. Igaz, Senegalen eskola bat konpontzekoak ziran baina bertan behera geratu zan. Aurten saiatuko dira berreskuratzen. **7. orrialdea**

**EKIN**  
30 urte behar

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)  
eraiketak@construccionesekin.com

### ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Hondakin organikoak tratetako planta bat egongo da Igorren

Bizkaiko Foru Aldundiak hondakin organikoak tratetako modua aldatu dau eta martiaren 1etik bota daitezke bertara okela, arrain, arrautza eta gaztai hondakinak. Oin arte Bizkaian landare jatorriko hondakinak bakarrik bota eitekezan eukiontz marroira, oin, animalia jatorrizkoak be bai. Hori dala-eta, Igorren konpostaje planta bat egingo dabe. **6. orrialdea**



### ARRATIA

## Caritas Arratiak 25 urte

Urteurrena ospatuteko, hainbat ekitaldi antolatu ditue; tartean, bere ibilbidea jasoten dauan erakusketea Igorreko Kultur Etxean.

Erakusketearen inaugurazio ekitaldia martiaren 2an izango da eta bertan, Carlos Burgos Bizkaiko Caritaseko zuzendaria egongo da.

Arratiako Caritasek sei arlotan egiten dau behar batez be: Harrera, sensibiliazinoa, bidezko merkataritza, lanerako formazioa, gaixoak eta edadetuak eta Pobreen Eguneko ekitaldietan, hain zuzen be.

Behar honek danak aurrera aterateko, hitzarmenak ditu erakundeak eta boluntario sarea bat dauka Caritasek. **5. orrialdea**



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Elbarrena



Gure inguruko herri batzuk, tamainuaren arabera, Bizkaiko handien artean dagoz. Zeberio harana, adibidez, luzeenetarikoa da: bertan Ergoiena eta Elbarrena deitzen diran aldeak daukaguz. Elbarrena herri edo haran horren beheko aldeari esaten jako. Eta honek hamabi auzuneok sartzean dira bere esparruan: Aresandiaga (Asandiaga), Saldarian (Saldain), Elorribieta, Arbildu, Uriondo (argazkian), Santa Kurutze (Santikruz), Mintegi, Larrakoetxea, Bertzuten, Arkulanda, Olazar eta Areiltza (Arltze).

## ERETXIA

### Nostalgia

**A**zkenaldi honetan guztiok nostalgian murgildurik bizi garala sumatzen dot giroan.

- Familiakoak bazkaritxo bat egiteko bildu ahal izatea gurako neuke...

- Nik lagunakaz barikuetako poteoa; kristoren barreak bota, norberaren kontu ilunak adiskidetasunaren putzuan ito...

Bai, uste dot danok gure bizitza zelan edo halan berreskuratuta bueltau eta "hemen ezer gertatu ez dalakoa" egin. Era berean, gaxa da ulertzea lehengo bizitzak eroan gaituala hain zuzen egoera honetara.

Desinformazioa edo informazio larri; saturata gagoz, deskonfiantzaz eta bildurrez beteta. Nora geroz guzti honek? Non amaituko dogu? Noz amaituko da? Zelan? Zeintzuk izango dira ondorioak?

Esandako moduan, zoritxarrez zientzialariek inguratutako bizigarano, badaukagu erantzunaren argitasun zantzu bat: gure betiko ohiturak eroan gaitue egungo egoerara. Bai lagunok, hori dakar planeteagaz ardurabakkeriaz ibilteak. Batzuek pentsauko dozue betiko teman nabilala... baina holan da. Gogoratu apokalipsiaren zaldunetako bat; izurritea, guk sortua, gizakiok. Bai, guk geuk. Oin alkarrereri errua botaz bizi gara, norberaren ardura onartu barik.

Argi dago egoera honek aldatuta izugarriak ekarriko dituala gure gizartean, baita gure bizimoduan. Ez pentsau, neuk be badaukat nire nostalgia partikularra; kontzertuak eta jaialdiak. Jentetza artean galdu, izerditan blai, garga da esku baten eta lagunak besarkatuz barruan daukagun guztia askatzea oihukatuz, ahotsaren garraztasunak mutu itxi arte. Duda barik, musikea, kultura oro har izan da pandemia honen biktima handienetako bat, eta kulturazaleok umezurtz gelditu gara. Nirearen legez, persona askoren bizitzaren parte da



### ITSASO ARRIZABALAGA

Irakaslea eta Dimetaleroa

kultura, arimari jaten emotea, eta egoera honek zeozer irakatsi badeusku, berau barik bizi ezin garala da.

Ni neu konziente naz; bizi doguna ez da osasun krisia funtsean, oinarrian, sistemearen patologia bat bizi dogu, zaintza krisi bat hain zuzen be. Ahaztu egin jaku, inoz jakin izan badogu, geure burua zaintzea, ondokoak, inguratzen gaituana, gizartea, baliabideak, orokorrean planeta zaintzea. Oin ondo dakigu zein dan ondorioa eta sistemearen gupil honetatik urtetea erraza ez bada be, norberak konzientzia, arduraz jotzea ezinbestekoa da. Ez gara unibersoaren erdigunea, oindino gehiago, oso hauskorrek gara, argi itxi deusku COVID-19ak.

Gizakia ei da ingurune desbardin eta aldakorretara egokitzeko gaitasun handiena daukan espeziea, biziraupena ziurtatzeko izaki bizidun plastikoena. Baina moldatze hori modu egokian emoten da? Biziraupena ziurtatzeko danak balio dau? Noraino iritsiko gara? Beharrezkoa da hausnarketa sakon bat egitea eta esandako moduan espezie legez konzientzia hartu eta erantzukizuna hartzea; ezbabere gureak egin dau.

Beraz, momentutxo bat hartu, ezarri, arnasa hartu eta gogoeta bat egiteko konbitea luzatzen deusuet; norberaren bizi estiloaren gainean, bakotzak onartu behar dauan ardurarena, etorkizunik baldin badago, zelangoa izatea gura dogun aztertzea... gure esku dago.

**ASESORIA  
Gorbeialde**  
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza  
Askitasun 28, 1B - 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: [gorbeialde@gorbeialde.com](mailto:gorbeialde@gorbeialde.com)

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begi tintsinoak  
Lentilen adaptazioak  
Kiroletarako betaurrekoak  
Salbino Arana 3, 48140 ICORPE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - [olaetxeoptika@hotmail.es](mailto:olaetxeoptika@hotmail.es)

**Kili-Kili**  
Amopu eta Puzutzuak  
Lehendakoa Agirre 10 - ICORPE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 43 81

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39  
Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24  
Arkaitz 677 46 40 91  
Galdar 666 58 20 06  
Puzutu polygonas, 10 LEMOA - [beeredariak@gmail.com](mailto:beeredariak@gmail.com)

## LUMATUTEN

MAITE ARTABE  
URKIRIKultur ekintzak,  
euri tanta

**A**dituak esaten dabenez burmuinak aldaketea behar dau funtzionetako, bihotzak odola, birrikak airea, begiak argia edo belarriak zaratea legez. Burmuina bere aldaketa dosi minimo barik, presino barik geratzen dan bihotza langoxea izan daiteke. Eta gizakiak zelan eroaten dauan aurrera aldaketa hori azaltzerakoan, dinoe edozein kasutan be mobilidade kontua dala; oinarrian modu bitara: edo fijo mantenidu mobiduten dan paisajea (alkarrizketan, adibidez) edo norbera mobidu fijo dagoan paisajea (bidaiatuz, adibidez). Gizakia abere sortzailea da eta ildo horretan bere burmuinak funtzionatzen jarraitu dagian bere mobilidade fisiko eta mentala atendidu behar ditu.

Hori holan bada, esan behar oingo egoeran ez dala erraza behar besteko elikadura emotea gure burmuinari, mobimentu-

sikatearen ondorioz batzuetan plano daukagula encefalogramea emoten dau-eta. Bakotxak bere errezetea izango dau berea bizirik eta funzionamentuan manteniduteko; nik neure aldetik beti izan dodaz kultur ekintzak lagun, baita oingoan be.

Ikuskizunetara, zinemara, musika entzutera... joatea lehenengo modalidadean sartuko litzateke (fijo mantenidu mobiduten dan paisajea). Holangetan jasoten doguna asko mobiduten danez, mobidu arazo egiten dau gure burmuina, gure sormena bizitu eta ikusitakoa ulertzean eta geureganatzean plazerra sortu. Laburbilduz, bizipoza emoten deuskue.

Horregaitik kultur ekintzak, ekonomia eta kulturearen arteko lotura izateaz gainera, gure bizikalidade maila igo egiten dabe eta bizitza sozialari kolorea, dibersidadea, gatza eta mobimentua gehitu. Ez da makala kultur ekintzak egiten daben bizitza sozialaren katalizadore lana be. Lan onuragari eta beharrezkoa gizakiontzat oingo neurriakaz dimensino eta modu desbardinak hartu baditu be.

Aurrekoa kontuan izanik eskatu gure neuskie udal, erakunde eta kultur eragileai ahalegin berezia egin dagiela ekintza kulturalak mantenidu eta bultzatzeko oingo egoeran be. Eta benetan eskertu azken hilabeteotan kosta ahala kosta antolatu dabezanak, nire burmuinarentzat sikatean euri tanta lakoak izan diranak.

## ZERTZEAN



## IRATI ASTONDOA

## Gaia jarrita: "Pablo Hasél"

1

Nork ez dau entzun egun honitan Pablo Haselen izena zentsura barik abestearren kartzelan sartu daurena delitu barik ezer ein barik iminiotsien kondena hau da egia esate hutsek ekarten dauen problema.

2

Konzentrazino ta istiluak azken egunetan gogor sentiduten dan amurru dana urten behar zan derrigor batzuri beti dana parkatu betikoei dana zigor bere eritzia emotearren ezilei epaitu inor.

3

Gaur egun lapur legala izan lei errege, premio nobel... korrupto izan kontua Suitzant ta eukiz hiru-lau txartel raperu sinple baten kritiken beldur diren kasu ustel baina justizi zoragarri honek babesturik dauzka itzel.

4

Hau zoritxarrez ez da jasoten dogun lehen notizia Euskal Herrian kasu askotan gertatu dan desgrazia ez dago inongo askatasunik hau ezta demokrazia lortu artean danok merezi ta nahi dogun justizia.

## BEGI TXINDORRA

**E**z dauka izen onik San Balendinek, feministen artean, maitasun erromantikoaren patroia da-eta. Egun horretan bat egiten ei dabe konsumismoak eta rol eta estereotipoetan oinarritutako amodio heterosexualak, kolonia, bonboi eta lorakaz ospatuteko. Bai, hala da. Baina eguna ospatuteko persona adina modu dagoz eta San Balendin ez da bakarrik maitaleen eguna, lagunena be bada. Beraz, ospatu daiteke alde hori be, bakotxak pentsau dagiala zelan. Ospatzea beti komenidu da, bizipoza dakar eta.

Leku gitxi izango dira munduan, Zeanurin bezain modu bitxian ospatuten dabenak: artea bat neurtu, ermitearen giltzak eta akta liburua maiordomo barriari pasau eta kanpaiak jotzen, hain zuzen be. COVID-19aren protokoloa beteteko, aurten modu pribaduan egin arren, irudiak heldu arazo deuskuez. San Balendin ospatuteko modu ugari dagozanaren lekuko.



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisci.com

**agoa**  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odonatologia  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zerbaita 101  
R.P.S. 21/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPERERA  
Elizasko, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)  
Tel. 94 621 64 62 - 608 664 018

**T ERROITZ OKA**  
Igorriko girok osasun!  
Lanbeteak Agere III  
Igorri

ARRATIA

## Basoa proiektua aurkeztu eutseen bultzatzaileak Arratiako alkarte eta gizarte eragileai

Arteko Bildosola auzoko etxean, Arratiako alkarteetakoak batu ziran zezeilaren 28an, Basoa proiektuaren barri jakin, eta eskualdeko mobimentuetako topaleku izan gura dauan etxea ikusteko.



### Erredakzioa

Beste batzuen artean, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformakoak, Harrera taldeak, talde feministak, talde ekologistak eta eskualdeko gazte asanbladak batu ziran bertan.

Basabide Fundazioak erosi dau etxea proiektu kolektiboa aurrera eramateko. Proiektuak, lau ildo ditu: giza eskubideen defendatzaileen etxe komunitarioa eta komunitate sartzailerako; mobimentuen eta sareen ikerke-

tarako eta alkartzeko espazioa; enpresa soziala, eta Arratiako mobimentuen topalekua. Etxeak, lurak eta ortua be baditu eta "ez da bakarrik ekintzak egiteko, biziteko lekua bada" esan eban bultzatzaileetako batek. Arratiako hainbeste talde egotea "historikotzat" jo eban beste batek, eta aukerea, taldeak saretzeko aprobetxau behar zala gehitu eban. Bezperan, Basoan, Emakumeen Mundu Martxari ondoetorria egin jakon, ekitaldi bategaz.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Zahar etxeetako egoiliarak urten ahal izango dira kalera

### Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiak, martiaren 1etik aurrera, zahar etxeetako egoiliarak bisita gehiago eukiteko baimena emon dau; baita kalera urteteko be. Beti be, bigarren txertoa hartu eta astebete pasau bada. Izan be, COVID-19aren kontrako txertoa hartu ostean, zahar etxeetako egoiliarren kolektiboak immunizauta egotea espero da. Hori dala-eta, astean hiru bisita eta kalera "gitxienez bitan" urteteko baimena

emon dau BFAk egoiliarak izan daben isolamentua arintzeko.

Bizkaiko Bioetika Batzordeak txosten bat egin dau pandemian zahar etxeetako egoiliarren eskubideak ez dirala errespetatu salatuz eta hartu diran hainbat neurri kentzeako eskatuz. Besteak beste, kontaktu fisikoa baimentzeko, urtenaldiak luzatuteko eta mobiduteko askatasun handiagoa emoteko eskatzen dau, egoiliarak jasaten daben askatasun eskubide murrizketek eragiten dauan sufrimentua arintzeko.



ARRATIA

## Caritas Arratiak 25 urte beteko ditu

1996ko martiaren 30ean sortu zan Caritas Arratia. Urteurrena ospatuteko, hainbat ekitaldi antolatu ditue; tartean, bere ibilbidea jasoten dauan erakusketea Igorreko Kultur Etxean.

### Erredakzioa

Martiaren 2an, 19:00etan, *Erdu gugaz* izeneko erakusketea zabalduko dau Carlos Burgos Bizkaiko Caritaseko zuzendariak. "Alkartearen 25 urteko lana azalduko da panel handi batzuen bitartez eta bertara helduko da Arratiako Trantzia solidarioa, azken hilabeteotan Arratia guztia zeharkatu dauana. Bideo musikal bat be estrenauko da; 150 arratiar baino gehiagok parte hartu dabe bertan, talde honeri eupada bat emonaz. Bertolaria be ez da faltako hasikera emoteko ekitaldi honeri".

Martiaren 14ra arte egongo da erakusketea Kultur Etxean.

### Caritas

Caritas eleiza katolikoaren erakundea da. Arratiako Caritasek sei arlotan egiten dau behar batez be: Harrera —asteleheneretan Igorreko



parrokiaren lokaletan 10:00etatik 11:30era—, sensibilizazioa, bidezko merkataritza, lanerako formazioa, gaixoak eta edadetuak —boluntario talde bat Diman mankomunitateak daukan egoitzara joaten izan

da hilean hiru barikutan, goizeko 10:30ean— eta Pobreen Eguneko ekitaldietan, hain zuzen be. Behar honeek danak aurrera aterateko, hitzarmenak ditu erakundeakaz eta boluntario sarea dauka Caritasek.

IGORRE

## Alkarretaratzea egin zan Conchi Gonzalezen erailketa matxistea salatuteko



### Erredakzioa

Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxa eta Arratiako mobimentu feministek deituta, konzentrazioa egin eben 100 persona inguruk, Conchi Gonzalez gogoan izan eta indarkeria matxistea lehen mailako arazo politikotzat hartzea eskatzeko.

56 urteko Conchi Gonzalez Sestaokoa, hilda topau eban Ertzaintzak etxean, zezeilaren 12an. Gizonak bere buruaz beste egin eban.

Ez zan hilabete Aintzane Pujana hil ebenetik. Indarkeria matxistek 2003tik hona, 109 andra hil ditu Euskal Herrian.

Bertaratutakoak salatu eben biolentzia matxistek eguneroko pandemia izaten jarraitzen daua eta prebentziorako politika feminista errealak behar dirala, transbersalak eta hezkidetzan sakontzen dabenak, eta indarkeria sexistea lehen mailako arazo politikotzat hartu behar dala ekarri eben gogora.

## ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Okela eta arrain hondakinak bota daitezkezuk eukiontzari marroian

Bizkaiko Foru Aldundiak hondakin organikoak tratetako modua aldatu dau eta martiaren 1etik bota daitezke bertara okela, arrain, arrautza eta gaztai hondakinak. Igorren konpostaje planta bat ipiniko dau Garbikerrek.

### Erredakzioa

Oin arte Bizkaian landare jatorriko hondakinak bakarrik bota eitekez eukiontzari marroira; animalia jatorrizkoak gehituz, beste pausu bat emon gura dau Foru Aldundiak birziklapena handitzeko. Eukiontzari marroian hondakinak botateko giltzarik ez daukienak Arratiako Udalen Mankomunitatean eskuratu behar dabe, eta boltsa konpostagarriak, txartelagaz, hurrengo leku honeetan eskuratu daitezke debalde: Dendabari (Areatza), Urki Mendi (Artea), Liburutegia (Bedia), Aliprox (Dima), Beatriz eta Pino frutategiak (Igorre), Kiroldedia, Liburutegia eta Matsotsu frutategia (Lemoa), Txoko Sagarna (Zeanuri) eta udaletxeetan eta mankomunitatean.

Hondakinak tratetako egitura nagusia, Bizkaiko Konpostegia da, eta berau egokitu behar izan dau Foru Aldundiak. Lanok, 2020an amaitu ziran eta 5,7 milioe euroko kostua izan dabe. "Egokitzapen lanak amaitutakoan, atzenengo hilabeteetan probak egiteari ekin jako, aldaketen funtzionamentua aztertzeke. Une honetan, plantak 10.400 tona biohondakin tratetako gaitasuna dauka. Inausketa

hondakin tratamentuari errepara-  
rauz edukiera be antzekoa da. Prozesuak zortzi aste irauten ditu eta urtean gitxi gorabehera 12.200 tona konpost sortuko dira" azaldu dabe Bizkaiko Foru Aldunditik.

### Konpostaje planta bat Igorren Garbikerrek

Konpostegia egokitzeagaz gainera, Garbikerrek konpostaje planta bana ipiniko dau hiru herritan; Getxon, Berriatuan eta Igorren, hain zuzen be.

Igorrekoa, lehen zabortegia egoan lekuan egongo da. Holan, lehengo egiturea, baskulea, bulegoa eta abar aprobetxauko dirala azaldu deutso BEGITURI Illart Gumuzio Igorreko alkateak. "Obra egin behar da, baina ez da zerotik hasiatez" dino.

Eskualdeko konpostaje planten helburua, baita Igorrekoarena be, materia organikoaren kudeaketea deszentralizetea eta konpostaren garraio ibilbideak murriztea litzateke, eta alkatearen arabera, konpostaje plantak ez leuke hatsik sortuko. "Etxeetan dagozan konpostadora txikiak legez izango litzateke, baina beste eskala baten".

## Arkaitz Estiballesek eta Bihotz Gorospek *Mundu berri bat guztiontzat* egitasmoan hartu dabe parte

Hamabi abesti eta hamaika bideoklipek osotuten dabe *Mundu berri bat guztiontzat* lana.

### Erredakzioa

Kantu eta bideoklipak, 35 alkarte osotuten daben Bizipoza alkarteak bultzatutako proiektua da, alkarte eta euskal kultur sortzaileen artean, alkarlanean egindakoa. Parte hartu daben sortzaileetako bi Arratiako dira: Zeanuriko Arkaitz Estiballes bertsolaria eta Bihotz Gorospe abeslari igorretarra.

Kantu guztien musikea Xabier Zabalak egin dau eta kantu bakotxa alkarte batentzat izan da. Bihotz Gorospek, Gehitu alkar-tearen *Bizitza da gorputza, askatasuna bihotza* kantuen hitzak sortu eta abotsa be ipinten deutso kantuari Yogurinha Borovagaz batera.

Konfinamentu sasoiaren, Bizipoza alkartearen kontaktuan ipini ziran sortzaileak kantuen hitzak egiteko eskatzeko. "Eurek euki eben ebazita nok egingo eban zer. Niri esan eusten Yogurinha Borovak abestuko ebala kantua Gehitu alkar-tearentzat eta hitzak neuk egitea gura ebela" azaldu deutso BEGITURI Bihotz Gorospek. Grabazio egunean, sortzaileak eta interpreteak batera egon ziran estudioan. Gorospe erosoago sentiduten dala kantuan hitzak sortzean baino dino, eta grabazio egunean kantetako prest

egoala esan eban. Yogurinha Borova be ados egon zan, eta estudioan sartu eta kantau be egin eban Gorospek.

### Kale Dor Kayiko alkar-terako kantua erromintxelaz


Arkaitz Estiballesek barriz, Kale Dor Kayiko alkar-tearentzako *Zatoz gure kerara!* kantuen hitzak sortu ditu. Kantua, erromintxelaz, hau da, euskerazko *caló* hizkuntzan egin dau; ia desagertuta dagoan hizkuntza honen lekukotasun bat itxi gura eban eta. "Nik baneukan erromintxelaren barri. Ikerketa

bat aurkitu neban aspaldi Josune Muñozek eginda eta hori aztertu eta neure buruari helburutzat ipini neutsan erromintxelaz egitea abestia, behintzat euskerazko *caló* hizkuntzaren testigantza bat geratzeko" azaldu deutso BEGITURI Estiballesek. Kantuaren hitzak sortu ostean, Muñozeri bialdu eta honek oneretia emon eutsan. Kale Dor Kayiko alkar-tekoai be asko gustau jakiela dino.

Ikerketea egin zanean, oin dala 15 bat urte, 1.000 erromintxel hiztun inguru baino ez ziran geratzen; euretako erdiak iparraldean.



Estiballes eta proiektuan parte hartu daben hainbat ezagun.



Gorospe, Gehitu alkar-teko kide bategaz eta Yogurinha Borovagaz.

## Alkarteak eta euskal sortzaileak

Honek dira *Mundu berri bat guztiontzat* CD-DVDeko kantua egin dabezan sortzaile, abeslari eta alkarteak:

-*Aukerak eta zu* (Oporrak Bakean). Hitzak: Aner Euzkitze; ahotsak: Aitor Gorosabel Garai eta Miren Narbaiza Martiartu.

-*Piraten indarra* (Aspanogi-Aspanovas alkarteak). Hitzak: Amaia Agirre Arrastoa; ahotsa: Eñaut Eloorrieta.

-*Hemen gaude* (Hiru Hamabi alkarteak). Hitzak: Julio Soto Ezkurdia; ahotsak: Enrique Villarreal Armendariz "El Drogas" eta Oihana Fernandez Iturri.

-*Bizitza da gorputza, askatasuna bihotza* (Gehitu alkarteak). Hitzak: Bihotz Gorospe; ahotsak: Yogurinha Borova eta Bihotz Gorospe.

-*Orbainen azpian* (Bihotzez alkarteak). Hitzak: Nerea Ibarzabal Salegi; ahotsa: Xabi Solano Maiza.

-*Amigo* (Biak Bat alkarteak). Hitzak: Leire Bilbao Barruetabeña; ahotsak: Mikel Urdangarin Abasolo eta Anabel Arraiza.

-*Haizearekin jolasean* (Aspanif alkarteak). Hitzak: Unai Iturriaga Zugaza-Artaza; ahotsak: Gari eta Josu Zabala.

-*Bi(h)urritasun* (Seaskako Integrazio Batzordea). Hitzak eta ahotsak: Amets Arzalluz Antia eta Maddalen Arzalluz Antia.

-*Maskorren ipuina* (Ulertuz alkarteak). Hitzak: Miren Amuriza; Ahotsa: Aiora Renteria (Zea Mays).

-*Zatoz gure kerara!* (Kale Dor Kayiko alkarteak). Hitzak: Arkaitz Estiballes Ormaetxea; ahotsa: Itziar Ituño Martinez.

-*Bizipoza auzolan* (Bizipoza alkarteak). Hitzak: Igor Elortza Aranoa; ahotsak: Aitor Gorosabel Garai, Miren Narbaiza Martiartu, Andoni Tolosa Goikoetxea, Maite Larburu, Enrique Villarreal Armendariz "El Drogas", Oihana Fernandez Iturri, Aiora Renteria, Gari, Josu Zabala, Igor Elortza Aranoa, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Eñaut Eloorrieta, Anabel Arraiza, Mikel Urdangarin Abasolo, Itziar Ituño Martinez, Yogurinha Borova, Xabi Solano Maiza, Amets Arzalluz Antia eta Maddalen Arzalluz Antia.

-*Amets bat eskuetan* kantua. Hitzak: Joxe Mari Auzmendi; ahotsak: Andoni Tolosa Goikoetxea eta Maite Larburu.

## ARRATIA



## Anabe Arruebarrena: "Udako eskaintza ezin bada aurrera atera, B planak daukaguz"

Martian zabaltzen da Bedian, ume eta gazteentzako udako jardueretan izena emoteko epea. Eskaintza zabala egiten dau Bediak herrikoentzat: Txiki-Txoko HHko umeentzat; udalekuak LHkoentzat, Uda Gaztea DBHkoentzat eta kooperazino proiektu bat 16 eta 24 urte bitartekoentzat. Igaz Senegalera ziran joatekoak, herri txiki bateko eskola bat konpondutera, baina bertan behera geratu zan COVID-19aren neurriakaitik; aurten, hara joateko proiektua berreskuratuko dabela, baina joatea ezinezkoa balitz, B plan bat daukiela dino Anabe Arruebarrena Bediako Kultura eta Gazte Teknikariak.

### Erredakzinoa

**Bediako gazteak Senegaleko herri txiki bateko eskolea konponduteko proiektua daukie aurten be.**

Igaz justu konfinau baino arinago egon nintzan Senegalen. Herriko gazteak eskola bat konpontzeko proiektua geunkan. Asmoa zan dirua eroatea han bertan erosteko materialak; pintorea eta abar. 14 plaza eskaini genduzan eta danak beteta egoazan, baina justu bueltau nintzanean konfinau ginduzan eta proiektua bertan behera gelditu zan.

Aurten barrero sartu dogu proiektua; badakigu egoera ez dala ona eta seguru asko ezin izango dogula aurrera eroan baina saiatu egingo gara.

**Zergaitik dinozu seguruena ezingo dala aurrera atera?**

Errazoiak? Ba, alde batetik, momentu honetan guztiz galarazota dagoalako eta bestetik, mugak zabalduko balira be, aztertu beharko litzateke ea eurak gura daben gu hara joatea aurten, ze Senegalen, oingo momentuan,

oso ondo dagoz COVID-19ari jakokonean.

**Zein herritako eskolea konpondu gura dozue?**

Hori oindino ezin dot zehaztu, ze lau eskola dagoz, lau herritan eta, joaterik badaukat, aprilean naz joatekoa hori zarratutera. Eta gainera han gauzak oso aldakorak dira, herri oso txikiak, eta eskola batzuk ez dabe asko irauten.

Eskola baten ura ipini behar da, ez daukie urik eta. Beste baten gelak pintau eta teilatua egin eta beste bietan, patioa konpondu behar da eta ura be ipini.

Herri txikiak izan arren, eskola bakotxean ume pilo dago. Danak gela baten edo gela bitan.

Igaz, 16 eta 24 urte bitarteko Bediako 12 gazte egoazan apuntata joateko prest. Aurten ez dakit, martian zabaltzen da izena emoteko epea, baina aurten be, igazkoak prest egongo dirala proiektua aurrera erosteko badaikit. Eta ez bada aurten, hurrengo urte baten.

**Aurten ezin bada, gazte horreentzat, B plan bat daukazue?**

Bai, igaz be B plana izan zan aurrera eroan genduzana, Senegaleko plana bertan behera geratu zalako. Aurten be, beste B plan bat daukagu, baina honek ez dauka zerikusirik kooperazinoagaz; kirola eta kulturea hartzean ditu ardatz.

Igaz Ordesara joan ginan eta aurten B plana Frantzian da. Piragua eta mendian ibili, eta uriak ezetu, kirola eta kulturea landuteko.

**Senegalekoa izan arren, atezinoaz emoten dauana, Bediak**

kea kalean ekimena izaten dogu. Urtean zehar ludotekea zabalik dago, baina garagarriaren bigarren hamabostaldian Ludosport dago. Hiru ordu baino ez dira izaten, baina ingelesa eta kirola kalean landuten doguz, eguraldi ona aprobetxetako.

**Igazko uda ez zan normala izan; berezitasun horrekin mantenduko dira aurten be?**

Gure prozedura oso arina da. Martian izaten da izen-emotea, jakiteko zenbat persona eukiko doguzan, ze gero hori dana ple-

udakoak, kultura ekintzak eta abar, bakarrik Bediakoentzat izango zirala. Holan, talde txikiagoak egin daitezke eta babes hobea emon. Aurten be neurriak jarraituko dogu, nahiz eta gauzak hobetu, eta kanpoko jentearentzako ez da egongo ezer. Urrieta arte, ez behintzat.

**Udalekuak eta beste jarduerak danak izango dira Bedian ala zenbait ume eta gazte urtengo dira beste herri batzuetara?**

Txiki-Txoko eta Udalekuak Bedian izaten dira. Udalekuan 3 egun kanpora joaten ginan, baina COVID-19a dala-eta, aurten ez gara joango. Jaialdi handi bategaz amaitzen ziran udalekuak, gurasoak etorteko, baina hori guztia desagertuta dago.

Uda Gaztean, barriz, igaz be joan ginan Lekeitiora eta aurten be joateko asmoa daukagu. Hamar egun izaten dira eta lehenengo 3 edo 4 egunetan, urtearen arabera, kanpinera joaten gara. Goizean, formazioa jasoten dabe gazteak. Adibidez, igaz adimen emozionalaren gaineko ikastaroa izan zan. Arrastian, ekintzaren bat egiten dabe hondartzan: surf-a, esate baterako.



### IGORRE

## Eskolako patioan karpa ipini dabe

### Erredakzinoa

Ikasturtea amaitu arte, karpa bat ipini dau Udalak eskolako patioan, umeak beste aterpe bat euki dagien eguraldi txarra egiten dauanean. Udan, patioa barrizatzeke lanak egingo ditue.

Aterpe bat badago patioan, baina COVID-19aren neurriak diralareta, eguraldi txarra egiten dauanean, "kiroldegiko frontoia ixten jakie, distantziak mantentidu eta masifikazioak ebiteko" Illart Gumuzio alkatearen esanetan.

Karpak 13x30 metro daukaz eta umeak eta gazteak erabili ahal izango dabe aterpeko

espazio gehiagarri hori eskola orduetan baina baita arrasti eta astegoienetan be.



**udako eskaintza zabala egiten deutse edade guztietako ume eta gazteai.**

Bai, esparrua zabala da. 3 eta 5 urte bitarteko umeentzat Txiki-Txokoa daukagu. Urtero 20 ume inguru egoten dira hor. Lehen Hezkuntzako umeentzat udalekuak izaten dira; 40 bat ume hartzean dabe parte. Uda Gaztean 14 plaza izaten dira DBH ikasten dabizenentzat. Nagusiakaz, normalean kooperazino proiektu bat bilatzen dogu.

Gainera, gurasoak lagunduteko, garagarriean Ludosport, ludote-

notik pasau behar da eta gero hasten gara hori aurrera erostan. Igaz euki genduzan A plana, B plana eta C plana, egoera oso aldakorra zalako. Ha-ta guzti be, Udalak argi eta garbi euki eban ahalegin guztia egingo ebala zeozer aurrera aterateko, ez ebazala gauzak bertan behera itxiko, ezer eskaini barik.

Azkenean, B planagaz geratu ginan. Lortu genduzan zeozer egitea. Egoera ez zan ona eta guk sano neurri potenteak eta oso zorrotzak ipini genduzan.

Neurrietako bat izan zan,

Hau beti izaten da Lekeition.

Aurten ohitura osasungarriak landuko doguz; jana eta kirola batez be.

Uda Gaztean, Lekeition 3 edo 4 egun pasauta, gero kanpora joaten gara, leku desbardineta. Menorkan, Alpeetan, Ordesan, eta Gredosen egonda gagoz. Aurten Bidarraiz toketan da, Nafarroan. Errekan ibiliko dira piraguan eta rafting-eant, mendira igon, herrietan geratu kultura ikusteko... Kontrabandoko ibilbidea zan eta geugaz izango dira historialari batzuk hori kontetako.

ARRATIA

## Haurreskolai babesa emoteko konzentrazioa egin eben Diman

LAB, ELA eta Steilas sindikatuak deituta Haurreskolak Partzuergoko beharginak greba egin eben zezeilaren 22, 23 eta 24an, Haurreskolak Hezkuntza zerbitzu unibersala eta familia guztientzako eskuragarria izatea aldarrikatzeko.

### Erredakzioa

Abenduan hasi ziran greba egun bigaz, urtailean beste bi eta zezeilean hiru greba egun egin dabez. Atzen greba egunean, konzentrazioa egin eben Diman.

Haur hezkuntzaren eskaintza publiko integral bat emoteko momentua dala dinoe eta horretarako Hezkuntza Sailean integretako. Gainera, indarrean dagozan akordioak errespetatu eta lan hitzarmen barria negoziatzeko bidea zabaldu be eskatu eben bertaratutakoak. Langileen egonkortasuna bermatzea ezinbestekotzat jotzen dabe kalidadezko zerbitzua emoteko. "Gure haurreskoletara helduko diran haur eta familien

ongizatea eta jaiotzetik hezkuntza eskubideak bermatuko dituan onurak dira greba dinamika ho-

negaz bat egitera bultzatu gaituenak" azaldu eben sindikatuetakordezkariak.



IGORRE

## Euskera Planak herriko komertzioa bultzatzeko kanpaina abiatuko dau

Herritarren artean, boltsak eta mosukuak bananduko ditu Euskera Planak, herrian bertan eta euskeraz erostera animetan.

### Erredakzioa

Helburu bikotxa dauka kanpaineak beraz: euskeraz berba egiteko konzientzia biztu eta herriko komertzioa bultzatu.

Boltsen kolorea morea da, "feminismoari keinu bat eginez" azaldu deutso BEGITURI Irune Costumero Igorreko Euskera Teknikariak. Bertan *Saldu eta erosi euskeraz, Igorre bizi daigun euskeraz* mezua agertzen da, ez bakarrik euskeraz, baita Igorren erabilten diran beste hizkuntza batzuetan be (hasanieraz, errumanieraz...).

Mosukoak barriz, *Zuk eta nik alkarregaz euskeraz* leloa daukie

eta Zuztertxu, Euskera Planaren sinboloa agertzen da bertan. Kolore "alaiki" ditue eta neurria hartuko da kontuan banandutera. Oindino zehaztu barik dago bananduteko lekua eta eguna.



Onakiaio Herri Ikastetxeak

# Gure ikastetxeak

Euskalduna kalidadezkoa herrikoa

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 428 79 34 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

**MARTXOAK 8, ANDREN NAZINOARTEKO EGUNA**

# ZAINZA BARDINTASUNEAN

Dimako Udala

Gugaz harremanetan ipinteko

94 631 73 14  
eta  
649 979 112

# begitu

Publizitatea:  
649 979 115

✉ [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

🌐 [www.begitu.org](http://www.begitu.org)





# MARTX8AK

EMAKUMEEN\* NAZIOARTEKO EGUNA

## SISTEMA ALDATU, FEMINISMOA LORTU!



Arratiako  
Udalen  
Mankomunitatea

BARDINTASUN ARLOA  
ÁREA DE IGUALDAD



**begitu**

### Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizitatea diseinatzen deutsu.

Publizitate eksklusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.  
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu  
(beste aldizkari batzuk, internet...).

<b>1. AUKEREA</b> Diseinua + 4 aldiz modulo 1 BEGITUan	<b>95€*</b>	<b>2. AUKEREA</b> Diseinua + 4 modulo BEGITUko portadan	<b>135€*</b>
--	-------------	---	--------------


Publizitatea:  
**649 979 115**

\*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.

# #GEROAMOREADA

1. Gure geroa MOREA nahi dugu, ez dago zalantzarik.
2. MORE hasi eta hezi nahi ditugu gureak eta mundua.
3. Errespetua, maitasuna eta elkarlana MOREAK dira.
4. MOREA ez da egun bat, morea bizitzan izateko modu bat da.
5. MOREA maitasuna oinarri duen iraultza feminista da.
6. Forma eta izen asko ditu kolore honek eta denak MOREAK dira.

M8-ARTEA



Arteako Udala

## MARTIAREN 8A

# Aurten ez da Arratia mailako manifestaziorik egingo martiaren 8an

COVID-19a ez hedatzeko neurriak guztiz baldintzatu dabe aurtengo Andren Nazinoarteko Eguneko martiaren 8ko egitaraua. Antolatzeko sasoian mobikortasuna galarazota egonda eta jakin barik martian zein izango dan egoera, batez be, herrira begirako jarduerak prestatu ditue Arratiako talde feministak, andra taldeak eta erakundeak. Eta ez Arratia osora begira.



## Erredakzioa

Arratia mailako ekintza bi egoten dira Andren Nazinoarteko Eguna-ren inguruan: manifestazioa Igo-rran eta Arratiako Andren Mendi

Martxea. Aurten, ez dira egingo. Arratia mailako manifestazioaren orde, zemendiaren 25ean egin zan legez, konzentrazioak eta manifestazioak egingo dira herrietan 18:30ean eta komunikadu bera

irakurriko da guztietan. Arantzazun eta Diman manifestazioak egingo dira. Zeberion 19:00etan izango da konzentrazioa udaletxe aurrean eta ostean performancea egingo dabe plazako frontoi grisean. An-

dren Mendi Martxarako deialdirik ez da egin.

Urte asko dira, herrietako taldeak, koordinatu egiten dirala kartel bateratu egiteko. Helburua da, beste batzuen artean, ekintza bi leku bitan batera ez egotea. Holan, alde batetik jente gehiagok parte hartu ahal izango dau ekintza bakotxean, eta bestetik, egitarau osoago bat be egongo da eskura. Taldeen arteko sarea be sendotu egiten dau kartel bateratuak. Aurten be egin da kartel bateratua baina herri bakotxean, herriko egitaraua be egin da.

Igaz, konfinamentuak zatitu egin eban apirilartekoa zan egitaraua: martiaren 12aren aurretikoa egin zan; ostekoa, bertan behera geratu zan dana.

## Zezeilean hasita

Mobilidadea asko murrizten dabezan neurriak baina zezeilean hasi dira aurten, aldarrikapen feministak. Izan be, Emakumeen Mundu Martxeak Nazinoarteko

Bosgarren Ekintza dauka martxan eta horren barruan, transnazionalak eta migrazio politikak salatu-teko ekintza sinbolikoak egin ziran Arantzazun, Artean eta Igorren, *Zubi guztien gainetik mugarik ez! transnazionalik ez!* lelopean eta zezeilaren 27an, Emakumeen Mundu Martxakoak, Artean egon ziran, Basoa defendatzaileen etxean, Arratian egindako zapiak jasoten.

Zapi honeetan, Euskal Herriko 27 eskualdetako talde feministak muga, errazakeria eta transnazionalen podere korporatiboaren aurkako konpromiso kolektiboak adierazoten dabez. EMMk martiaren 6an, Irun-Hendaia arteko mugan emongo deutso amaiera ekintza internazionalari. Bertan erakutsiko ditue "mugen eta transnazionalen aurkako adierazpen artistiko eta politiko feminista diran zapi honeek".

## Ikuskizunak eta berbaldiak

Martiaren 5ean, 19:00etan, hiru ekintza dagoz; bata Diman, beste bat Igorren eta bestea Lemoan. Diman, *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatua da programatua dagoana. Bertan, Nerea Ibarzabalek, Oihana Bartrak, Alaia Martinek eta Oihana Iguaranek botako dabez bertsoak eskolako kamaran. Izena aurretik emon behar da udaletxean. Igorren, Ines Bengoak, helduentzako ipuin kontaketea egingo dau Lasarte Aretoan eta Lemoan, Ane Labaka bertsolariaren eta Bea Egizabal aktorearen *Erradikalak ginen* umorezko ikuskizuna egongo da, Jubiladuen etxeko goiko aretoan. Igorreko ipuin kontaketarako ez da izenik emon behar, Lemoakoan barriz, hilaren 3ra arte emon daiteke izena udaleko webgunean. Arantzazun be eskainiko dabe *Erradikalak ginen* ikuskizuna hilaren 26an, Kultur Gunean.

Zeberion be martiaren 5erako, 19:30ean, programau dabe *Ama-*





alu-lur sorgin baten ametsa antzezlan, 2019ko Poltsiko Antzerki Sorkuntza saria irabazi ebana. Antzezlan honen idea eta gidioa Beatriz Larrañaga eta May Gorostigarenak dira. Testuan be biak parte hartu eben, Imanol Arabaolaza eta Ekaitz Goikoetxeagaz batera. Antzezlanaren abiapuntua komunikabideetan agertutako albiste bat da: "Oreretako Aitzibiarte IV kobazuloan, oin dala 14.000 urte inguruko paleolito garaiko irudiak aurkitu ditue. Guztien artean goibehe metro bat baino gehiago dan alu bat nabarmentzen da". Izena 94 648 10 79 udaletxeko telefonon emon behar da.

Hurrengo egunean, zapatuan, gure artean dagozan andra migratzaileen esperientziak kontetako kafe tertulia egongo da eguerdiko 12:00etan, Zeanuriko Sagarna tabernan.

Gaztetxoentzako tailerrak be egongo dira. Izan be, martiaren 6an, Lemoako Gaztelekuan, Autodefensa Feminista tailerra egongo da 12 eta 16 urte bitarteko neskontzat. Izena bezpera arte emon daiteke 688 676 908 telefonon.

Artean egun horretan jantza modernoko udal ikastaroko ikasleak eta edadekoentzako gimnasia egiten dabenak bideo bat grabauko dabe, *Geroa morea da jantzaldiagaz*. Hurrengo egunean 13:00etan, zuzenean egongo dabe hori jantzialdiori frontoian.

Diman, argazki tailerra egingo dabe domekan, hilak 7, 12:00etan

frontoi txikian. Tailerrean, erreferente diran andra batzuen argazkiak pintau, eta herrian zehar ipiniko ditue erretratuok. Hurrengo egunean, 18:30ean, herriko plazan batu eta globoak ipiniko ditue udaletxean, eta ondoren, parkean urte osoan geratuko dan buzoiaren aurkezpena egingo dabe. Gero, konzentrazioa parkean bertan hasi eta manifestazioan joango dira, plazaraino. Jakinarazpen eta abesti bategaz amaituko dabe Andren Nazioarteko Eguneko aldarria.

Hilaren 7an Igorren, 18:30ean *The Glorias* filma ikusi ahal izango da. Gloria Steinem ekintzailearen bizitzan oinarritutako filma da. 1960ko eta 1970eko urteen artean mobimentu feministearen ahots nagusi bihurtu zan Steinem.

Beste film bat ikusi ahal izango da martiaren 7an Zeberion. Paula Palencianoren *No solo duelen los golpes* filmaren proiektzioa eta ondorengo hausnarketea 18:30ean izango dira, Zeberioko dendearen ondoko lokalean.

Bediak, martiaren 8rako, 18:00etan, antolatu dau Maite Arbonies Porres-en berbaldia *Mujeres, río y montaña* liburutegian. Maite Arbonies ur nahasietako karyak irakaslea da.

Zeanurin, 18:30eko konzentrazioaren ondoren, *Jantzari, tradizioa eta parekidetasuna* dokumentala ikusi eta horren gaineko solasaldia egongo da 19:00etan Kultur Etxean.

duaren mitoaren gaineko tailerra emongo dau. Tailerrak saio bi izango ditu. Lehenengo saioa hilaren 9an izango da, 18:00etatik 20:00etara, udaletxe azpiko gelan; eta bigarrena, hurrengo martitzenean, hilak 16.

Zeberion, Irantzu Varela egongo da martiaren 11n, *El feminismo hoy, situación y retos* berbaldia emoten 19:00etan, txokoan.

**Hile osoan zehar**

Hilaren bigarren hamabostaldirako, idazleen mahai-ingurua, bertso saioa eta zineforuma programau dabe Artean, eta Bardintasan diagnostikoaren aurkezpena eta performance bat Areatzan, besteak beste.

Idazleen mahai-ingurua martiaren 18an, 18:30ean Arteako Kultur Etxean da izatekoa. Katixa Agirre eta Alaine Agirre izango dira euren idazte prozesuaren barri emongo



daben idazleak. Bea Azpiri kazetariak egingo ditu moderatzaile lanak. Hurrengo zapatuan, hilak 20, Uxue Alberdi, Miren Artetxe, Maite Berriozabal eta Nerea Ibarzabal bersolariak *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatua eskainiko dabe frontoian. Mahai-ingururako eta bertso saiorako izena emon behar da udaletxean. Azkenik, Arteako Andra taldeak antolatuta zineforu-

ma egongo da martiaren 25ean, 17:30ean, Kultur Etxean. Nigeriatik datozen personeren trafikoaren inguruko *El hilo de la luna* pelikulea ikusteko aukerea egongo da.

Martiaren 17an, arrastiko 18:30ean Areatzako udal aretoan egingo da bardintasan diagnostikoaren aurkezpena. Ondoren, Zapalduen Antzerkia konpainiak *Egunon* lana eskainiko dau.

**EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA M8 DIA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES**

<p><b>MARTXOAK 5</b> Bertsoa-Antzezlanak Euskaraz</p> <p><b>ERRADIKALAK GINEN</b></p> <p>Ane Labaka eta Beatriz Egizabal</p> <p>🕒 19:00 📍 LEMOA - Jubilatuen gaineko aretoan</p>	<p><b>MARTXOAK 5</b> Bertsoa saio musikatua Euskaraz</p> <p><b>EZ DA KASUALITATEA</b></p> <p>Nerea Ibarzabal, Oihana Bartra, Alais Martin eta Oihana Iguaran</p> <p>🕒 19:00 📍 DIMA - Eskola ganbaran</p>
<p><b>MARTXOAK 7 MARZO</b> Film proiektzioa Castellano</p> <p><b>THE GLORIAS</b></p> <p>Autora: Julie Taymor</p> <p>🕒 18:30 📍 IGORRE - Kultur etxean / En la Casa de cultura</p>	<p><b>MARTXOAK 8 MARZO</b> Hitzaldia Castellano</p> <p><b>MUJERES, RIO Y MONTAÑA</b></p> <p>Maite Arbonies Porres</p> <p>🕒 18:00 📍 BEDIA - Liburutegian / En la biblioteca</p>
<p><b>DENA ALDATU, SISTEMA ARRAKALATU!</b></p>	
<p><b>ARRATIAKO HERRI GUZTIETAN ELKARRETARATZEA MANIFESTAZIOA</b></p> <p>MARTXOAK 8 / 18:30</p> <p>Arantzazu, Artea, Areatza, Bedia, Dima eta Zeanuriko herriko plazetan / Lemoako Plaza Gorrian / Igorreko Kultur Etxean</p>	
<p><b>MARTXOAK 9 ETA 16</b> Tailerra Castellano</p> <p><b>EUSKAL MATRIARKATUAREN MITOA / EL MITO DEL MATRIARCADO VASCO</b></p> <p>Aitziber Aginagalde</p> <p>🕒 18:00 - 20:00 📍 ZEANURI - Udaletxe azpiko gelan</p>	<p><b>MARTXOAK 17</b> Euskaraz</p> <p><b>BERDINTASUN DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA + 'EGUNON' PERFORMANCEA</b></p> <p>Ana eta Pili - Zapalduen Antzerkia</p> <p>🕒 18:30 📍 AREATZA - Udal aretoan</p>
<p><b>MARTXOAK 18</b> Mahai ingurua Euskaraz</p> <p><b>EUSKAL LITERATURA ETA EMAKUMEAK</b></p> <p>Alaine Agirre eta Katixa Agirre, Bea Azpiri moderatzailea.</p> <p>🕒 18:30 📍 ARTEA - Kultur etxean</p>	<p><b>MARTXOAK 26</b> Bertsoa-Antzezlanak Euskaraz</p> <p><b>ERRADIKALAK GINEN</b></p> <p>Ane Labaka eta Beatriz Egizabal</p> <p>🕒 19:00 📍 ARANTZAZU - Kulturgunean</p>

\*Ekintzetarako izen ematea beharrezkoa da

# begitu

18 urte

arratia  
ubide  
zeberio

## BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

### 2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAIKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Hori egiteagaitik **Garena** jatebixean lagun birezako degustazino menua zozketatuko dogu aprilean.



\*Gainera Begituren produktu honek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_  
 Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€  15€

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

bizkaiko kultur  
txartela

cecoxi

Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke **Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!**

# begitu

ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be **Begitu-laguna!**

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)



GURE HELBURUA  
EZ JAKELA EZER FALTA  
...ETA BATEZ ERE MAITASUNEZ, MAITASUN OSOZ

JANDONIZ

nagusientzako etxea  
residencia para mayores



EGONALDI IRAUNKORRAK ETA ALDI BATERAKOAK

Jandoniz, 2 · 48390 BEDIA · tel. 94 631 31 30  
[www.residenciaparamayoresjandoniz.es](http://www.residenciaparamayoresjandoniz.es)

ARRETA OSOA:

- Lagunduta
- Dementziak
- Fisioterapia- errehabilitazioa
- Zainketa aringarriak
- Post-ebakuntza errekupeazioa

TALDEA OSATZEN DU:

- Medikua
- Erizaintza
- Fisioterapeuta
- Psikologoa
- Lanbide-terapeuta
- Animatzaile soziokulturala

GAINERA DAUKAGU:

- Ile-apaindegia
- Podologia
- Masajista



emakume  
Langilearen

NAZIOARTEKO EGUNA

2021



IGORREKO  
UDALA



## FUTBOLA

Lankidetzaz hitzarmena sinatu dabe  
Berritzu alkarteak eta Athletic-ek

## Erredakzioa

Areatzako Gazte-justiziako zentroa kudeatzen duan Berritzu alkarteak eta Athletic Club Fundazioak proiektu sozial bat abiatu dabe alkarlanean, zentroan dagozan gazteai lagunduteko.

Holan, Athletic-en fundazioak asteroko futbol entrenamentu saioen bidez, banakako proiektu sozio-educatiboetan hartuko dau parte, gazteen gizarteratzea lagunduz. Athletic Club Fundazioak, Areatza, Bilbo eta Ortuellako zentroetan ipiniko dau martxan gizarte proiektu hau.

## Berritzu Areatzan

Areatzako moja komentua izan-



Areatzako Berritzuren zentroa.

dakoa, hainbat nerabe dagoz heziketa, laneratze eta gizarteratze prozesu baten barruan, gurasoanako indarkeriagaitik epaile batek holan aginduta. Zentroa

Berritzu kudeatzen dau. Berritzu irabazi asmo bako erakundea da, 1991n hasi zana hego Euskal Herrian egoan lehenengo Gazte-justizia zentroa kudeatuten.

## MENDIA

Txikon etxerako bidean da  
tontorra zapaldu barik

## Erredakzioa

Ezinezkoa izan da. Zezeilaren 28an, bertan egoteko baimena eukan atzen egunean, amaitutzat emon eban Txikonek espedizinoa, Manaslu (8.162 metro) mendiko tontorra zapaldu barik. Izan be, atzenengo egunetako haizeak eta edurrak ez eutsan tontorra egiteko bigarren saiakerarako aukerarik emon, eta hurrengo 10 egunetarako be eguraldi txarra egoan iragarri han. Hori dala-eta, han egoteko baimena barrizatzea alperrik zala jo eban Lemoako alpinistek.

Espedizino taldea be murriztuta egoan ordurako. Astebete lehenago bueltau zan etxera Simone Moro, eguraldiak aukerarik ez ebal emongo eretxita eta egun batzuk beranduago gauza bera egin eban Iñaki Alvarezek, lanean emon eutsien baimena amaituten jakolako.

Ha-ta guzti be, Txikonek ez eban esperantzea galdu eta behe kanpamentuan jarraitu eban baimena amaitu arte. Egun batzuk lehenago, amaitzeaz egoan

espedizino baimena martira arte barrizatze asmoagaz Nepalgo Turismo Ministeriora deitu eban Txikonek. Han, baimena luzatu ezker, baimena udabarriko espedizino izentapenagaz izango litzatekela esan eutsien eta Txikonen helburua Manaslu neguan egitea zanez, ez luzatzea ebatzi eban. "Martian oindino negua izan arren, tontorra egitea udabarriko baimenagaz ez dauka zentzurik" esan eban Txikonek.

Hori dala-eta, atzenengo egunak goiko kanpamentuetan itxitako materiala behe kanpamentura ekarten emon eben, dana batu eta buelta emoteko. Lehenengo (5.800 m) eta bigarren (6.400 m) kanpamentuetako materiala jaso eben baina hirugarrenkoa (7.000 m) ez, eguraldiak ez eutselako bertara ailegetan itxi Txikon eta geratzen ziran bere espedizinoideai. "Ondo seinalez-tuta dago banbuakaz eta, beraz, urrian puntu horretara ailegetan danak denda bat, esterilak, janari apur bat eta gasa topauko ditu" azaldu eban Txikonek etxerako bidea hartu aurretik.



Eneko Garamendi eta Alex Txikon. Argazkia: Phelipe Eizaguirre.

mediku naturista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elikagai biologikoak  
zelakoentzat elikagaiak  
estetiziana

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

**belagorri**

**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**

*Behin dagoz jabetza*

- Salmentan zein alkatariuan
- Lurak (irakitea, landat, basok...)
- Etebiziak (pauk, basenak, etxek...)
- Gardeak
- Laxo komertzioak
- Publikoak...
- Bolonarioak

*Behin dagoz proiektu*

- Erakin berrik erakitzeko
- Enfornak
- AATipule-proiektuak
- Borne diseinua
- CEE eta IEE-ak
- Hirigintza ohikuaritza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

**arratia**  
INMOBILIARIA

Urdulabarre Agirre 22, bilbao - Ispora  
Nagusitasun 14, 48101 Bilbo - 48101 Bilbo  
Bilbo 14, 48101 Bilbo - 48101 Bilbo  
Bilbo 14, 48101 Bilbo - 48101 Bilbo  
Bilbo 14, 48101 Bilbo - 48101 Bilbo  
Bilbo 14, 48101 Bilbo - 48101 Bilbo  
Bilbo 14, 48101 Bilbo - 48101 Bilbo

## FUTBOLA

### Liderraren kontra bardinketea

Arratia taldeak atzen hiru partiduak daroaz galdu barik.

#### Erredakzioa

Arratia taldeak partidu bakarra jokatu dau zezeileko bigarren hamabostaldian.

Zezeilaren 27an Real Sociedad B liderraren kontra jokatu eban Arratiak Zubietan eta bana bardindu eban, emaitza oso ona. Arratiak, ligako lehen garaipena lortu eban zezeilaren 13an eta Realaren kontrako partiduan puntu bat lortu eban. Hiru partidu jarraian daroaz arratiarrak galdu barik.

Datorren partidua, martiaren 6-7ko astegoienean jokatu dau Arratiak San Ignacio taldearen

kontra Igorreko Urbieta zelaian.

Arratia, hamabi jardunaldi jokatu eta gero eta ligako lehen zatia

amaitzeko partidu bi baino ez diranean falta, saillapeneko atzen postuan dago sei puntugaz.



Oiartzunen kontra jokatutako partiduaren ostean ateratako argazkia.

## KIROLA

### Arratian Euskal Selekzinoen aldeko ekimena aurkeztuko dabe

#### Erredakzioa

Oin dala urtebete San Mamesen aurkeztu zan "Gu ere bai!" ekimena. Ehundaka sinaduraren babespean, nazinoarteko probetan Euskal Herriak bere ordezkartzea behar dau ala aldarrikatu, eta euskal kirolariak sostengatzeko ekimen moduan. Horren alde beharrean dagoz Arratian be. Izan be, herri bakotzeko kirolariren bategaz bilerea prestatzen dabiz ekimena ezetuten emoteko. Asmoa martian bertan egitea da, eguna eta lekua zehaztu barik egozan BEGITU zarratukeran.

"Munduaren aurrean aurkezteko modurik onena litzateke, kirolariren garapena —formazioan, lehiaketetan eta profesionalki— bermatuko leukena. Ez dogu inoren aurka egin gura, gurea babestu eta aldarrikatu gura dogu bakarrik. Nazinoarteko aitortza bat, gure selekzioak jokatu eta lehiatzeko eskubidea izan dagien, eta guk Euskal Selekzioa eta gure kirolariak babestu eta animetako" inoan besteak beste, *guerebai.eus* webgunean irakurri daiteken manifestuak, eta aste gitxitan 1.000 sinadura baino gehiago batu ebazanak.

#### Urtebete beharrean

San Mameseko zelaian aurkezpena egin eta hurrengo asteburuan, koronabirusaren pandemiari aurre egiteko itxialdian sartu ginduzan. Gu ere bai! ekimena, udabarrirako hainbat egitasmo ebazan arren, albo batera itxi eta bideojoko lehiaketa bat ipini eban martxan: Euskal Liga. Bost euskal taldeen, Alaves, Athletic, Eibar, Real eta Osasunaren arteko liga birtuala hain zuzen be, Playstationetik, etxeetan jokatzeke.

Maiatzean ospatzen ziran 40 urte Euskal espedizinoak Everest gailurrean ikurriña ipini ebanetik, eta hori gogora arazoteko mendiz mendi ikurriñak astitzen ibili ziran Gu ere bai ekimenekoak.

Beñat Etxebarria eta Mikel Sanjose Athletic taldetik agurtzeko agurrak bazterrak harrotu ebazan, euskeraz idatzita egoalako. Horren alde agertu zan Gu ere bai!, kirolariren hizkuntza eskubideak babestuz. Uda berean, Unai Etxebarria Granadako atezaina taldetik botateko kanpaina egin eben Altsasukoen aldeko kamisetegaz agertu zalako argazki baten. Haren aldeko ekimena bultzatu eben Algortan.

"Hilabeteak joan, hilabeteak etorri gure aldarrikapenak egin doguz, Tourreko etapa baten edo Euskal Selekzioaren futbol partiduan. Sano hunkigarria izan zan Ipurua zelaiko argazkia. Costa Ricaren kontra, Euskal Selekzioak jokatutako partiduaurren aurretik, danok telebistatik ikusi ahal izan genduan "Euskal Selekzioa, Ofizialtasuna. Euskal Herriak mundura!" pankartea. Eta horrek zelanbaist, futbol munduan egoan aldarria indartu eta hauspotu eban" azaldu deusie BEGITURI Gu ere bai-tik.

Abendua amaieran, Euskal Futbol Federazioak eskaera ofiziala egin eban UEFA eta FIFA. "Futbol selekzioaren aukerea, herri oso baten aldarria da, beste kiroletakoa be gauzatu beharrekoa. Eremita batzuetan daborduko nazinoarteko probetan lehiatzen dira kirolariak Euskal Selekzioagaz, eta baita marka onak lortu be. Adibide moduan, aurtengo urrietan Munduko Sokatira Txapelketea izango da Getxon, eta han Euskal Selekzioak marka onak errepikatuteko aukera parebakoa izango dau".



Ekhi Ziarrusta Dimako pelotaria.

**MARTXOAK 8  
GORA  
EMAKUMEEN  
BORROKA!**

Arantzazuko Udala

**Barrero hartuko  
doguz kaleak!**

**GORA  
BURRUKA  
FEMINISTEA!**

Zertu

## ANTZERKIA

Aitziber Garmendia eta Jon Plazaolak *Losers* (*Galtzaileak*) antzezlanaren taularatuko dabe Igorren

## Erredakzioa

Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean, Marta Buchacaren komedia hau dakar Txalo Produzioak konpainiak Igorreko Lasarte Aretora, martiaren 14an, 19:00etan.

## Sinopsia

Manuel eta Sandra ia berrogei urte ditue, eta gizarteak markatutako baldintzetatik ez dabe bat bera be

beteten: umerik ez, bikoterik be ez eta diruz be urri dabiz, etxebizitza bat erosteko aukera barik. Horregaitik, euren buruak galtzailatzat daukiez. Aldatzeko esperantza handirik ez daukie, pozik biziteko merezimenturik izango ez balebe legez. Bizipozak, baina, ez dauka mugarik eta ez dauka zerikusirik ondasun materialakaz edo gizarteak marketan dituan usadio eta arauen menpe biziteagaz.



## ZINEKLUBA

Sally Potter-en *The Party* filma ikusgai Igorren

## Erredakzioa

Martiaren 4an, 19:00etan, Igorreko Zineklubak, *The Party* (2017) pelikulea eskainiko dau Lasarte Aretoran. Pelikuleak, 2017ko Berlingo zinemaldiko sail ofizialeko saria jaso eban, beste sari batzuen artean.

*The Party* Sally Potter-ek idatzi eta zuzendutako komedia baltza, zuri-baltzean dago filmatuta eta gizarte ingelesaren satirea egiten dau, lagun talde baten katarsi moralaren bitartez. Ministro izentau barri daben Janet-ek jai bat antolatuten dau lagunakaz ospatuteko izentapena eta hasikeran ospakizun baten moduan hasiko dana, ustekabean amaituko da.



## La espinita

*The Party* filmaz gainera Tania Arriagaren *La espinita* zortzi minutuko laburmetrajea be proiektatuko da. Laburmetrajearen aurkezpena zuzendariak berak egingo dau.

## KONTZERTUA

## Iparragirre ikuskizuneko kantak, kantaldi formatuan Areatzan

Martiaren 13an, 19:00etan, Gontzal Mendibilek, Angel Unzu eta Iñaki Dieguez musikariak eta Ainhoa Tabuyo mezzosopranoak lagunduta, Iparragirreraren kantak eta bere bizitza ekarriko ditu Areatzako komentura, *Iparragirre ikuskizuneko kantak jasoten dituan kantaldian*.

## Erredakzioa

Izena, Areatza Urtaroka webgunean edo udaletxera deituta emon daiteke martiaren 11ra arte.

Kantaldia, *Iparragirre* musikaren formatu txikiko bersioa da. "Igaz, izan ziran 200 urte Jose Mari Iparragirre jaio zala, eta, beste leku batzuetan be bai, baina Areatzan be, Areatzako Bandeagaz eta Arratiako hainbat korugaz sanbartolometan *Iparragirre* musikala egiteko asmoa geunkan. Gero, dana bertan behera geratu zan. Oin dala lau hilabete, Areatzatik deitu eusten, formatu txikian komentuan egiteko" azaldu deuto Gontzal Mendibilek BEGITU.

Formatu txikiko hainbat kantaldi eskaini ditu Gontzal Mendibilek, hiru-lau lagunegaz; Angel Unzu gitarra jolea, Iñaki Dieguez akordeoilaria eta Ainhoa Tabuyo Easo koruko abeslariagaz, Angelaren papela egiten dauanagaz, hain zuzen be. Ordu bete t'erdiko kantaldia da. "Ni Iparragirreraren kantuetan eta ariman sartuz, kontu-kontari kantuen bidez, joango gara nor zan, orduko sasoiko kontestua emoten eta

abar" dino Zeanuriko kantariak.

## Proiektu barriak

Hileotan, beste musikal bat sortu dau Mendibilek, *Hazia* izenekoa, Jose Mari Arizmendiarieta koo-

peratiben sortzailearen gainekoa. Luis Baraiazarrak XVI. mendeko Joan Gurutzekoaren euskeratutako poesiak be musikatu ditu eta disko bat prestatzen dabil, maiatza aldean kaleratzea espero dauana.



## IPIUINAK

## Ipuin kontaketa saioa Lasarte Aretoran

## Erredakzioa

Martiaren 5ean, 19:00etan, Ines Bengoak helduentzako ipuin kontaketa saioa eskainiko dau Igorreko Lasarte Aretoran. Bere ostean, publikoaren txandea izango da eta gura dauanak, mikrofonoa hartu eta ipuinak kontetako aukerea izango dau. Lasarte Aretoa 100 persona inguruko aforoa dauka eta bete arte, sartzea izango dau jentekak. Ez da alde zuzenetik izena emon beharrik.

Martiaren 8a, Andren Nazionario Egunaren inguruan antolatu dau ekintza hau Igorreko Liburutegiak. Ines Bengoaren

ipuin ostean, jenteari aukerea emongo jako ipuin kontalari jarduteko eta andren esperientziak genero literario honetan konte-

tako.

Martiaren 27an, IV. Olerki Topagunea eratuko dau Igorreko Udal Liburutegiak.





## ANTZERKIA

### El Chef bakarrizketea Lemoan

#### Erredakzioa

Martiaren 13an, 19:00etan, David Caiñaren *El Chef* bakarrizketea eskainiko dau Gorka Minguez aktoreak Lemoako kiroldegian. Izena, hilaren 11ra arte emon daiteke 688 883 686 telefonoan. 45 urtetik gorakoak lehenasuna izango dabe.

#### Sinopsia

*El Chef* sukaldaritza masterclass bat da, eta bertan, zapoak, aromak eta testurak frustrazioagaz, oroitzapenakaz eta inoz bete ez diran itxaropenakaz nahastuten dira. *El Chef* bere trikimailu eta desengainuak, teknikak eta ilusinoak partekatzen ditu, gustua, usaimena eta drama zentzua estimulauz. Izan be, bizitza, sukaldea legez, garratza izan daiteke, baina beti bilatu deikiogu puntutxo gozoagoa.



## LIBURUA

### Udalak Areatza bisitatzeko koaderno argitaratuko dau

Herria hobeto ezetuteko, *Areatza bisitatzeko koaderno-Cuaderno de viaje Areatza*

izeneko liburua argitaratuko dau Areatzako Udalak eta etxeetan bananduko da.

#### Erredakzioa

Ibilbide baten bitartez, herriko historia jasoten dau ilustrazioen bidez. Martin Ortega Muro da egilea; ilustrazioak egiten Jon Arretxek lagundu dau, eta Markel Petralandak, Mikel Urrizek eta Angel Larreak lagundu dabe edukietan.

Herritarrak hain ezagun dituen kale eta txokoak beste ikuspegi

bategaz ikustea da liburuaren helburua. "Billaroztarrok txikitatik jolasean, oston-ostonka, galapan edo bizikletan gure herriko txokoetatik ibilteko ohitura izan dogu. Liburu honen helburua xumea da; txikitatik bihurrierietan ezetutako ibilbide eta txoko horreek beste ikuspegi batez ikustea... edota herrian egon ziran burdinola zein errota desbardin



langileen berotasuna sentidutea, balnearioko bezeroetariko baten maletan sartzea..." dino Asier Garcia alkateak liburuaren sarre-ratxoan. "Gure historia ezetutea beharrezkoa dalako, izan daitela liburutxo hau gure herria hobeto ezetuteko abiapuntu edo atxakia".

Areatzako auzoen barri jakinda

eta ibilbidearen mapeagaz hasten da uribildutik bisitea: bainuetxe, kale, parke, zubi eta historia handiko eraikinen zehaztasunak eta marrazkiak dagoz 72 orrialde-tako liburuan.

Liburua martian zehar bananduteko asmoa dauka Areatzako Udalak herriko etxe guztietan.

## ANTZERKIA

### Erradikalak ginen ikuskizuna Lemoan eta Arantzazun

#### Erredakzioa

Ane Labaka bertsolaria eta Bea Egizabal antzerkilaria eta ipuin kontalaria, *Erradikalak ginen* umorezko ikuskizuna ikusteko aukerea egongo da hilaren 5ean, 19:00etan, Lemoako Jubiladuen etxeko goiko aretoan, eta hilaren 26an, Arantzazuko Kultur Gunean. Lemoako saiorako izena [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean emon behar da hilaren 3ra arte.

*Erradikalak* gara-ren jarraipena da *Erradikalak ginen* nahiz eta ikuskizun independenteak izan. Bigarren parte honek, "neska gazte promesa" etiketeaz, zahartzeaz, gorputzaren aldaketaz, sexualidadeaz, merkadu patriarkalaz, interseksionalidadeaz, bildurraz, biolentziaren eta andrak zeharkatzen dituen beste hainbat gaiz jarduten dau umorez, kantuan, bertsotan eta alkarrizketen bidez.



## DUNBA

### Gizarteratze Goi Mailako ziklo barria Zulaibarren


#### Zulaibar Lanbide Ikastegia

Egungo egoera gogor honen erdian badogu Zulaibar Lanbide Ikastetxeko langileok eta baita ikasleok ilusino berbizteko errazoi barri bat. Oingo honetan, guretzat zein bailarako personentzat aukera barriak ekarri leikiezan gure hezkuntza eskaintza eguneratua ezetuten emon gura deusuegu. Hurrengo ikasturte aurrera (2021-2022) Gizarteratze Goi Mailako Teknikari titulazino barria eskuratzeko eskolak emoten hasiko gara ikastetxean.

Gaur egun, menpekotasun egoeran dagozan personai arreta

emoteko Erdi Mailako Zikloan ikasten daben ikasleai, formakuntza ibilbide bat eskaini ahal izatea izan da gure helburu nagusia apustu barri honetan. Aspalditik jaso dogu gure ikasleengandik gogo eta beharrian hau eta lan handia egin ondoren eurei zein eskaera handia daukan ziklo hau egiteko gogoia daukien personai erantzun bat emon ahal izango deusuegu.

Ongizateko gizarte eta sistema batek daukan berezko garrantzi eta balioa inoz baino gehiago agerian gelditu da bizi doguzan garai honeetan. Era berean, nabarmentzekoa be bada giza esparruan sortzean diran beharrianak



etenbakoak dirala eta honek lan aukerak gero eta ugariagoak eta altuagoak (Lanbideko datuak erreparaz) izateak eragiten daua.

Zentzu honetan, Zulaibar ikastetxeak xede dauka bailarako per-

sonen laneratze eta gizarteratze prozesuetan bidelagun izatea eta bertoko giza eragile bilakatzea. Horregaitik, gure hezkuntza eskaintza industrialia izateaz gainera, beste jakin-min, interes eta talentu des-

bardinak izan leikiezan personentzat aukerak emon behar izango dira. Hurrengo urtean, gure hezkuntza eskaintza eguneratua ezetuten emon gura deusuegu.

Besoak zabalik espero zaituegu interesa dozuen guztioi proiektu barri honetan gugaz parte hartzeako. Metodologia parte-hartzailea, dinamikoa, lan munduko erronka eta errealidadeagaz bat datorrena eta lan giro kooperatibo zein baloretan oinarritutako ikaskuntza prozesu honen parte izatera konbidatzen zaituegu.



## AGENDA

**MARTIAK 2  
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko.

**AREATZA**

Negu osoan zehar geolokalizazio jarduerak. Aukeratu Gorbeia Parkeko zonalde bat, koordenatuak jarraitu eta saiatu proposatutako puntuak aurkitzen. Materiala emailen bidez edo Parketxera hurbilduz eskuratu daiteke.

**ARRATIA**

Areatzan eta Lemoan Berbalagun egitasmoan bidelaguna izateko izena emon 662 199 033 telefono zenbakian edo [arratia\\_berba@aekeus.com](mailto:arratia_berba@aekeus.com) helbidean.

**ARTEA**

Apirilaren 9ra arte, ume eta gazteentzako Ipuin Lehiaketea. Euskeraz, gaia libreza izango da. Haurren kategoria 8 urtetik 12 urtera; gazteena, 13 urtetik 17 urtera. Sariak: umeen kategorian, 1. saria 75 euroko bonoa, 2.a 50 eurokoa; gazteen kategorian, 1. saria 100 euroko bonoa, 2.a 75 eurokoa. Lanak [arteakultura@bizkaia.org](mailto:arteakultura@bizkaia.org) helbidera bialdu behar dira. Sari banaketea apirilaren 24an izango da.

**BEDIA**

16:30etik 19:30era, hilaren 12ra arte, izena emon Ludosport, udako ludotekarako; Txiki-Txokorako; udalekuetarako; Bediako Uda Gaztearako eta Senegalerako Coopera bidairako. Liburutegian.

**IGORRE**

19:00etan, *Erdu gugaz* Caritasen 25. urteurreneko erakusketearren inaugurazioa Kultur Etxean. Erakusketea hilaren 14ra arte egongo da.

Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo [liburu.igorre@gmail.com](mailto:liburu.igorre@gmail.com) helbide elektronikora idatzita. Astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 14:00etara, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.

**LEMOA**

Liburutegia zabalik arrastiko ordutegian, astelehenetik barikura 16:30etik 19:30era Kotxepin Kulturugunean. Liburuak maileguan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili liburutegia.

Hilaren 11ra arte, 13an izango dan *El Chef* bakarriketarako izen emotea 688 883 686 WhatsAppean.

**MARTIAK 3  
LEMOA**

16:00etatik 17:00etara eta 18:30etik 20:00etara, eguaztenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako orientazio zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon; 17:30etik 18:30era, eguaztenetan, gimnasia gidatua edadekoentzat Kiroldegian. Aurretiaz izena emon behar da.

16:30etik 17:15era, Udalak antolatuta, Oingabiz programearen barruan, ariketa fisikoa eta kirola gazteen artean sustatzeko doako saioa kiroldegian. Saio bakotxean 10 personako taldeak gehien izango

dira eta taldeak kurso berekoak. Izena banaka emon behar da [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean.

**MARTIAK 4  
IGORRE**

19:00etan, zinekluba *La espinita* film laburra eta *The Party* (Sally Potter, 2017) Lasarte Aretoan.

**MARTIAK 5  
DIMA**

19:00etan, *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatua. Bertsolariak: Nerea Ibarzabal, Oihana Bartra, Alaia Martin eta Oihana Iguaran. Eskolako kamanan. Izena 685 759 997 telefonoan emon edo [kulturadima@bizkaia.org](mailto:kulturadima@bizkaia.org) helbidean.

**IGORRE**

19:00etan, Ines Bengoaren helduentzako ipuin kontaketea Lasarte Aretoan.

19:00etan, Txemi Santamariaren eskutik *Landu barruko jardina* berbaldua

parrokian.  
**LEMOA**

19:00etan, Ane Labaka bersolariak eta Beatriz Egizabal aktoreak *Erradikalak ginen* umorezko antzezlan eskainiko dabe Jubiladuen etxeko goiko aretoan.

**ZEBERIO**

19:30ean, antzerkia *Ama-alu-lur sorgin baten ametsak* frontoian. Izena 94 648 10 79 telefonoan emon.

**MARTIAK 6  
ARTEA**

Jantza modernoko ikastarokoak eta edadekoen gimnasiakoak bideoa grabau.

**LEMOA**

17:00etan, Autodefensa Feminista tailerra 12 eta 16 urte bitarteko neskenentzat. Gaztelekuan.

**ZEANURI**

12:00etan, Kafe tertulia: *Emakume migratuak gure artean* Txoko Sagarnan; ondoren, Mugarik ez zapia ipini.

**Olatz Salvadorrek Aho uhal diskoaren aurkezpeneko kontzertua emongo dau Igorren**

Martiaren 6an egongo da Lasarte Aretoan Olatz Salvador bere estudio dioko bigarren bakarkako lana aurkezten.

Kantautore donostiarrak 2021eko urtailean kaleratu eban *Aho uhal* lana. Diskoak hamabi kantu ditu, eta euretako batzuei, Alaia Martinek eta Ane Labakak ipini deutseez hitzak. Ander Zulaika (bateria), Jagoba Salvador (bajua) eta Mattin Saldias (gitarra) ditu bidelagun Salvadorrek disko honetan.

*Aho uhal* izenaren nondik norakoak azaldu ebazan musikariak Argian: "Paradojikoak iruditu jatan zelan gaztelaniaz kontrola hartu edo zozter gidatzeko konnotazioa daukan berbeak, euskerara itzultita, kontrolatua izatearen konnotazioa hartzean daukara, gustau jatan eta abiapuntu interesgarria iruditu jatan abestietan zehar horregaz jolasteko".

**MARTIAK 7  
ARTEA**

13:00etan, *Geroa morea da* jantza ikuskizuna frontoian.

**DIMA**

12:00etan, argazki tailerra frontoi txikian.

**IGORRE**

16:30ean, zinea, *El rey elefante*;

**ZEBERIO**

18:30ean, *The Glorias* Lasarte Aretoan.

**MARTIAK 8  
ARRATIA**

18:30ean, Andren Nazinoarteko Eguna dala-eta konzentrazioak.

**ARANTZAZU**

19:00etan, Andren Nazinoarteko Eguneko manifestazioa plazatik urtenda.

**BEDIA**

18:00etan, Maite Arbonies Porresen berbaldua *Mujeres, río y montaña* liburutegian.

**DIMA**

18:30ean, herriko plazan batu eta globoak ipini udaletxean; ondoren, parkean buzoiaien aurkezpena. Han konzentrazioa hasi eta, manifestazioan, plazara.

**LEMOA**

09:30etik 11:00etara, astelehenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako ibilaldi gidatuak nagusientzat Gudarien parkean, alde aurretik izena emon barik; 11:00etatik 13:30era astelehenetan, orientazio zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon.

**ZEANURI**

18:30ean, alkarretaratzea plazan; 19:00etan, Mazala andra taldeak antolatuta, *Jantzari, tradizioa eta parekidetasuna* dokumentala eta solasaldia.

**ZEBERIO**

19:00etan, Andren Nazinoarteko Eguna dala eta konzentrazioa eta performancea. Gazte Asanbladak antolatuta plazako frontoi grisean.

**MARTIAK 9  
ZEANURI**

18:00etatik 20:00etara, *Bazen behin... euskal matriarkaduren mitoa* tailerra udaletxe azpiko gelan.

**MARTIAK 10  
LEMOA**

16:00etatik 17:00etara eta 18:30etik 20:00etara, eguaztenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako orientazio zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon; 17:30etik 18:30era, eguaztenetan, gimnasia gidatua edadekoentzat Kiroldegian. Aurretiaz izena emon behar da.

16:30etik 17:15era, Udalak antolatuta,

Oingabiz programearen barruan, ariketa fisikoa eta kirola gazteen artean sustatzeko doako saioa kiroldegian. Saio bakotxean 10 personako taldeak gehien izango dira eta taldeak kurso berekoak. Izena banaka emon behar da [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) webgunean.

**MARTIAK 11  
ZEBERIO**

19:00etan, Irantzu Varelaren berbaldua *El feminismo hoy, situación y retos*. Austarri Kultur Elkarteak antolatuta txokoa.

**MARTIAK 12  
ARTEA**

Zuhaitz Eguna. 12:00etan, Gernikako arbolaren kimua landatu, Maurizia eta Leonen monolitoaren inguruan.

**DIMA**

17:00etan, *Garuna effect* zientzia monologoak eskolako kamanan. Izena [kultura.dima@bizkaia.org](mailto:kultura.dima@bizkaia.org) helbidean edo 685 759 997 telefonoan emon.

**IGORRE**

Arrastian, drogen gaineko berbaldua Kiñu Gaztetxean Ai Laket!! alkarretaren eskutik.

**MARTIAK 13  
AREATZA**

Gorbeia Parke Naturalak eta Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak antolatuta boluntariotza eguna.

19:00etan, Gontzal Mendibilen *Iparragirre* kantaldia, Ainhoa Tabuyogaz. Musikariak: Angel Unzu eta Iñaki Dieguez. Komentuan. Izena Areatza Urtarokaren webgunean edo 94 673 90 10 telefonoan emon.

**IGORRE**

16:30ean, zinea, *Barry el rey de la disco*;

18:45ean, *Mi niña* Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

19:00etan, Gorka Minguez-en *El Chef* bakarriketea. 45 urtetik gorakoak lehenasuna izango dabe. Kiroldegian.

**MARTIAK 14  
IGORRE**

19:00etan, Txalo Produzioak konpainiak, Marta Buchacaren *Losers (Galtzaileak)* antzezlan eskainiko dau. Aktoreak: Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola; zuzendaria: Begoña Bilbao. Lasarte Aretoan.

**MARTIAK 15  
LEMOA**

09:30etik 11:00etara, astelehenetan, Oingabiz jarduera fisikoa sustatzeko programako ibilaldi gidatuak nagusientzat Gudarien parkean, alde aurretik izena emon barik; 11:00etatik 13:30era astelehenetan, orientazio zerbitzua Arraibin. Aurretiaz izena emon.

# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

### LANA

#### ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizaua egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: [narao\\_esparza@hotmail.com](mailto:narao_esparza@hotmail.com) (lehen hitzordua doban).

#### TABERNAN LAN EGITEKO PREST

Astegoien eta jaiegunetan tabernan lan egingo neuke Arratia edo inguruetak herrietan. Arloan esperientziaduna naz. Interesautu egon ezkeru idatzi

konpromiso barik 619 893 185 telefonora.

#### LAN EGITEKO PREST

Nikaraguako andra heldua, lan egiteko prest. Persona nagusien zaintzan hainbat urte ibilitakoa. Behar izan ezkeru deitu 648 470 485 telefonora.

#### SALTZEAN DODAZ

Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modeloa, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1**  
Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Olatz Salvadorren kontzerturako.

Iratxe Olabbarri (Igorre)  
Aratz Sagarna (Igorre)



**begitu**

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean moda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [seimmoda@hotmail.com](mailto:seimmoda@hotmail.com)

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
[zekutzejatetxea@hotmail.com](mailto:zekutzejatetxea@hotmail.com)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

**begitu**

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 · 94 673 70 55 · 94 612 11 96 · Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea · Igorre (Bizkaia)

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3 - 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel.: 94-673-70-87  
Tel.: 609-79-40-54

**Dia %**  
**PEDRO**  
AUTOZERBITZU  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

*Pinturas Aratia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
Publizidadea: 649 979 115  
**begitu**  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**BIZARGINAK**  
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta bukanduten dogu  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

LEMOA  
946 31 44 06  
ZABAL@ALKIZABAL.NET

# ALKIZABAL

LEMOA - BASAURI  
www.alkizabal.net

BASAURI  
946 51 03 99  
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA



CTX CONTAINEX



TeknoDidaktika  
Formación Práctica en PRL



Nilfisk



MASTER  
CLIMATE SOLUTIONS



MANITOU  
HANDLING YOUR WORLD